

## **JANGELA**

### **HELBURUAK**

- Giro lasaia eta errespetuzkoa lortu.
- Ondo jan.

### **ANTOLAKETA ETA ARAUAK**

#### **HAUR HEZKUNTZAN**

Jangelaren antolaketan ardurak era honetan egongo dira banatuta

#### **Jangelako arduradunaren funtzioak:**

- Ausolanekin harreman guztiak bideratu: bazkari eskaera, begirale eskaera, materialaren erosketa...
- Jangelako antolaketaren ardura izan.
- Hilabete bukaeran jangelako kontuak egin.
- Bazkaltiar kopuruaren kontrola eraman.
- Begiraleen erreferentziazko figura izan.
- Familiekin harremanak bideratu.
- Zuzendaritzako partaide batekin batera, ikasturtean zehar begiraleekin egingo diren bilerak antolatu.
- Zuzendaritzako partaide batekin batera, hiruhilabeteko bakoitzaren bukaeran balorazioa egin eta komenigarria ikusten bada aldaketak proposatu eta jangela berrantolatu.

#### **Begiraleen funtzioak:**

- 3 urteko umeei eskuak garbitu.
- Ume guztiei amantala jartzen lagundu.
- Jatun txarrei jaten lagundu.
- Ume guztiengan begirada jarri eta kontenitu.
- Arauak gogorarazi.
- Guztien erreferentea izan.

- Jaso nortzuk diren jatun txarrak familiari eta andereñoari informatzeko.
- Umeren bat sukarrarekin dagoenean familiari deitu.
- Umearen batek urraturen bat eginez gero urarekin garbitu.
- Umeren bat busti edo asko zikindu bada arropa aldatu.
- Istripu larriago baten aurrean zuzendaritzakoei deitu.
- Patioan erabiltzeko materialaren banaketaren ardura hartu.
- Patioan umeen zaintza egin eta lotara doazen 2 urtekoen ardura hartu.
- 14:25ean gelako ate ondora lagundu eta bermatu andereñoekin gelditzen direla.

### **Officekoaren funtzioak**

- Mahaiak ipini: bi plater , koilara, sardexka eta labana; edalontziak uraz beteta, pitxar bat uraz beteta, ogia ,eta erdian ontzi batean 1. platera banatzeko.
- Jaso jangelako begiraleak hurbildutako ontzi zikinak.
- Atera bandejatara bigarren platera eta postrea.
- Jangela eta sukaldea jaso hurrengo egunerako.

### **Ume bakoitzaren betebeharrak:**

- Ateratako janaria jan.
- Ogia edo ura gehiago behar duenean eskua altxatu .
- Mahai inguruan ogia, papera edo beste zerbait badago jaso.
- Jateko tresnak erabiltzen hasi ikasten.
- Oihukatu barik hitz egin .
- Patiora irten aurretik utzi aulkiak ondo ipinita.
- Patio garaian arazoren bat baldin badago begiralearengana jo eta laguntza eskatu.

Jangelaren espazioak era honetan egongo dira banatuta:

- Bedoñaben jangela adineka banatuko da.
  - 2 urtekoek harrera gelan bazkalduko dute .
  - 3, 4 eta 5 urtetakoek jangelan bazkalduko dute.
  
- Musakolan ikasle guztiak espazio berean bazkaltzen dute.
  - 2 urtekoei eskuak geletan garbituko zaizkie.
  - 3 urtekoei eskuak jantokiko begiraleek garbituko dizkiete.
  - 4 eta 5 urteko ikasleekin bi irakasleak arduratuko dira esku garbiketaz.
  - Begiraleek lagunduko diete ume guztiei amantala janzen.
  - Umeek lekutik altxatu barik bazkalduko dute.
  - Jatun txarra direnei begiraleek gutxiago aterako diete eta jaten lagundu.
  - Tresnak gero eta hobeto erabiltzea eskatuko zaie.
  - Denak bukatu arte ez dira patiora irtengo. Denak batera irtengo dira 13:05ak aldera.
  - Jangela barruan ezin da jostailuekin jolastu. Kanpoan erabili dezakete etxetik ekarritako materiala.
  - Patiora garbi eta txukun irtengo dira.
  - Amantalak bere tokian utziko dituzte begiraleen laguntzaz.
  - Ikasleak patiora irten aurretik begirale batek kanpoko ate guztiak itxita daudela bermatuko du. Komun inguruan ere begirale bat kokatuko da hemengo sartu irteerak.
  - Musakolako komunera begiraleak lagunduko die eskailerak igo behar dituztelako.
  - Patioan eskolako materiala izango dute eskuragai (trizikloak, motorrak, baloiak.... beti ere begiraleen ardurapean).
  
- Materiala ondo zainduko dute.
  
- Ateratako materiala denon artean jasoko da.
  
- Gatazketan umearen ongizate fisikoa bermatuko da, lasaitzeko aukera emango zaio, azalpenak eskatuko zaizkio eta arauak gogorarazi.

- Patioan begirale guztiak hartzen dute ume guztien ardura.
- Eguraldi txarrarekin Musakolan umeak barruan geldituko dira, eta Bedoñaben aterpean egongo dira.
- 2 urtetakoek 15' irtengo dira patiora eta ondoren lotara joango dira 13:30ak aldera.
- Bedoñaben igogailua erabiliko da 2 urtekoak lotara eramateko.
- Hamaka guztiak prest egongo dira.
- Ume bakoitzak bere hamaka izango du eta beti toki berean etzango da.
- Arropa asko gabe lotaratuko dira.

### **Ikasleak arautegia bete ezean ondorengo neurriak hartuko dira:**

Lehen hezkuntzarako arautu diren neurriak erabiliko dira.

### **LEHEN HEZKUNTZAN**

Jangelaren antolaketan ardurak era honetan egongo dira banatuta.

### **Jangelako arduradunaren funtzioak:**

- Ausolanekin harreman guztiak bideratu: bazkari eskaera, begirale eskaera, materialaren erosketa...
- Jangelako antolaketaren ardura izan.
- Menu berezien argazkiak prestatu officeko arduradunarentzat.
- Hilabete bukaeran jangelako kontuak egin.
- Bazkaltiar kopuruaren kontrola eraman.
- Begiraleek betetzen dituzten falta parteak bideratu.
- Begiraleen erreferentziazko figura izan.
- Begirale berria datorrenean bere funtzioen azalpena eman eta jangelako AJAz informatu .
- Familiekin harremanak bideratu.
- Tutoreekin harremanak bideratu.

- Zuzendaritzako partaide batekin batera, ikasturtean zehar begiraleekin egingo diren bilerak antolatu.
- Zuzendaritzako partaide batekin batera, hiruhilabeteko bakoitzaren bukaeran balorazioa egin eta komenigarria ikusten bada aldaketak proposatu eta jangela berrantolatu.

### **Mahai arduradunaren funtzioak:**

- 1.platera banatu mahaian aterata egongo den ontzi batetik.
- Jaso 1. platerak, hondarrak erdiko ontzira bota ondoren eta eraman horretarako dauden gurdietara..
- 12:45etik aurrera, begiralea bideratuta hironaka edo launaka hartu officeko leihotik 2.platera eta eraman mahaira.
- Zerbitzatu 2.platera.
- Banatu mahaiko pitxarretik ura behar duenari. Pitxarra husten denean eskua altxatu eta begiraleei eskatu pitxarra berria.
- Jaso 2.platera, hondarrak bandejara bota eta gero eraman horretarako dauden gurdietara.
- Hartu postrea plateretan eta eraman mahaira.
- Joan baietaren bila eta 2 lagunen artean garbitu mahaia, hondarrak plateretan jaso.
- Mahaia eta mahai ingurua garbi dagoenean itxaron begiraleak patioara irteteko baimena eman arte.
- Txalekoa tolestatu eta horretarako dagoen kutxa utzi.

### **Begiraleen funtzioak:**

- Lagundu mahai arduradunei gauzak ondo eta txukun egiten.
- Behar izanez gero ur eta ogi gehiago banatu.
- Ume guztiengan begirada jarri eta kontenitu.
- Arauak gogorarazi.
- Guztien erreferentea izan.

- Jaso nortzuk diren jatun txarrak jangelako arduradunari informatzeko. informea 14:30tik aurrera egingo da.
- Egoera desegokiak daudenean parteak idatzi ,jaso gertatutakoa eta arduradunari jakinarazi. Parteak 14:30 tik aurrera idatziko dira.
- Umeren bat busti edo asko zikindu bada arropa aldatu.
- Umeren batek urraturen bat eginez gero urarekin garbitu.
- Istripu larriago baten aurrean jangelako arduradunari jakinarazi.
- Umeren bat sukarrarekin dagoenean jangelako arduradunari jakinarazi.
- Patioan erabiltzeko materialaren banaketaren ardura hartu.
- Patioan umeen zaintza egin.
- Ez dira sukaldean sartuko.
- Begirale bakoitzak bere ardurapeko mahaian dauden dieta bereziak bideratuko ditu. eta etorri ez diren bazkaltiarren kontrola eramango du.
- Begiraleak euskaraz zuzenduko zaie ikasleei.
- Begiraleek ez dute jangela orduetan (12:30/14:30) ezer jango. Arauak ez badira betetzen jangelako arduraduna parte emango du zuzendaritzan eta zuzendaritza Ausolaneko arduradunarekin kontaktuan jarriko da eta neurriak hartzea exijituko dio.

### **Officekoaren funtzioak**

- Mahaiak ipini: bi plater, koilara, sardexka eta labana;
- Bandejetara atera bigarren platera eta postrea.
- Menu bereziak prest izan begiraleek hartu ahal izateko sukaldera sartu barik.
- Jangela eta sukaldea jaso hurrengo egunerako.
- Egunero garbitu ikasleak mahaiak garbitzeko erabiltzen dituzten zapiak.
- Ostiraletan txalekoak garbitu.
- Ostiraletan begiraleak eta officekoak erabiltzen duten komuna garbitu.
-

### **Ume bakoitzaren betebeharrak:**

- Ateratako janaria jan, denbora barruan.
- Bukatu ondoren platera mahai erdian utzi.
- Ogi gehiago behar duenean eskua altxatu eta itxaron begiralea etorri arte, ezin da deika hasi.
- Mahai inguruan ogia, papera edo beste zerbait badago jaso.
- Jateko tresnak era egokian erabili
- Erraztu mahai arduradunaren lana.
- Patora irten aurretik utzi aulkiak ondo ipinita.
- Patioan lau eremutan ibili eta ez irten hortik.
- Patio garaian arazoren bat baldin badago begiralearengana jo eta laguntza eskatu.
- Begiralearengana errespetuz eta ahots tonu egokiaz zuzendu.

Irakasle batek lagunduko ditu 1. eta 2.mailako ikasleak jangela ondoko komunetara eskuak garbitzeko.

3., 4., 5., eta 6. mailakoak beraiek bakarrik joango dira jangelara.

- Sartu aurretik ikasle guztiak eskuak garbituko dituzte horretarako egokitu diren komunetan.
- Bi begirale kokatuko dira komunen sarreretan esku garbiketaz arduratzeko.
- Beste begiraleak jangela barruan egongo dira umeak sartzen direnerako, eta arduratuko dira sarrera modu ordenatuan eta lasaian gauza dadin.
- Mahai bakoitzean asteko arduraduna egongo da, eta astero txandatzen joango dira. Arduradun horiek txaleko horia eramango dute. Lan honetan 6., 5., eta 4. mailako ikasleak arituko dira.
- Ikasle bakoitzak (ohikoak) bere mahaia izendatuta edukiko du, behin behinekoak jangela arduradunari galdetuko dio.
- Ikasleak sartu eta zuzenean eseriko dira bere mahaietan eta patora irten arte ez dira altxatuko.

- Ikaslea asteen gutxi jan duenean edo ez duenean jan, begiraleak jangelako arduradunari jakinaraziko dio eta honek etxera deituko du eta jakinaraziko dio familiari.
- Bazkaldu eta gero ikasleak ingurua eta aulkiak jasota utzi eta patioa joango dira.
- Jangela txikikoak, begiralea aurretik doala atzeko atetik irtengo dira.
- Jangela handian bertako atetik irtengo dira. Irteera aurreko begirale batek zuzenduko du eta beste begirale guztiak honen esanetara jarriko dira.
- Jangelan armairu, apal edo kakoetan hortzeskubilak egongo dira haginak garbitzeko.
- Patioa lau eremutan egongo da bananduta eta honela egingo da bertako zaintza:
  - bi begirale kokatuko dira aterpean eta atzeko belardian.
  - Bi begirale kokatuko dira kantxako eremuan: bat komuneko sarbidearen ondoan, eta bestea ate ondoko eskailera ondoan.
  - Begirale bi egongo dira beheko patioan.
  - Begirale bat kokatuko da atzealdean.
- Materialaren banaketarako ikasturte hasieran egingo da taula bat non agertuko diren ikasturte osoko arduradunak asteka.
- Erregistro orri bat egongo da eta bertan jasoko da materialaren kontrola eguneko (nork hartu duen, zerbait falta bada, apurtu bada..).
- Materiala bigarren patioa eta atzeko eremuaren artean dagoen aldapatxoaren inguruan banatu eta jasoko da ; erregistro orria materialarekin batera egongo da.
- Materialaren arduradunaren funtzioak honakoak izango dira:
  - a. Atsedendialdiaren hasieran banatu materiala ikasleen artean.
  - b. Jaso erregistro orrian materiala hartu duten ikasleen izen- abizenak, maila eta taldea.
  - c. Atsedendialdiaren bukaeran jaso ikasleak itzultitako materiala eta erregistro orrian adierazi.



d. Materiala desagertzen bada edo hondatuta itzultzen bada erantzukizunak eskatu dagozkion ikasleari eta araututako neurriak hartu.

- Materiala erabilera desegokiagatik apurtu edo desagertzen bada jangelako arduradunak dagokion ikaslearekin eta familiarekin hitz egingo du eta ordainaraziko zaio.
- Ikasleak ez dira ibiliko ez patioak banatzen duten belardi zatietan , ezta ere beheko patioako mutur batean dagoen belardi zatian
- Eskumako beheko komuna erabiliko da eta begirale bat egongo da horko sarrera eta irteera zaintzeko. Ikasleek baimena eskatuko dute.

Materialaren arduradunaren funtzioak honakoak izango dira:

e. Atsedendialdiaren hasieran banatu materiala ikasleen artean.

f. Jaso erregistro orrian materiala hartu duten ikasleen izen-abizenak,maila eta taldea.

g. Atsedendialdiaren bukaeran jaso ikasleak itzultitako materiala eta erregistro orrian adierazi.

h. Materiala desagertzen bada edo hondatuta itzultzen bada erantzukizunak eskatu dagozkion ikasleari eta araututako neurriak hartu.

- Materiala erabilera desegokiagatik apurtu edo desagertzen bada jangelako arduradunak dagokion ikaslearekin eta familiarekin hitz egingo du eta ordainaraziko zaio.
- Ikasleak ez dira ibiliko ez patioak banatzen duten belardi zatietan , ezta ere beheko patioako mutur batean dagoen belardi zatian
- Eskumako beheko komuna erabiliko da eta begirale bat egongo da horko sarrera eta irteera zaintzeko. Ikasleek baimena eskatuko dute.
- Euri egunetan aterpea erabiliko da eta ezingo da baloirik atera. Zikloek txandaka egingo dute: Bi zikloetako ikasleek aterpea erabiltzen duten bitartean beste zikloko ikasleak jangela handian geldituko dira eta mahai jolasetan arituko dira.
- Euri egunetarako zaintzak koadro batean antolatuta geldituko dira ikasturte hasieran.
- Txandak antolatuko dira ikasturte hasieran jarritako egutegiaren bitartez

- Atertzen badu, aterpea eta kantxa erabili ahal izango dute kanpora irten diren zikloek; barruan gelditu dena berriz, azkeneko 15 minututan irtengo da patioa.
- Ohiko bazkaltiarra egun soltean etxera joaten bada etorri ahal izango du patioa denboran eta sartuko da goiko atetik.
- 14:25 rako begiraleek ikasleak bideratuko dituzte sarrerara eta arduratuko dira inor patioan ez dadila gelditu.
- Jangela garaian ikasleren bat etxera joan bada, jangela arduradunak tutoreari jakinaraziko dio.
- Jangela arduradunak ikasle guztien telefonoak izango ditu eta arduraduna falta bada begiraleen eskura geldituko dira.
- Jantokiko orduetan ikasleak ezingo dira irten eskolatik etxera joateko ez badago arrazoitutako motiborik (medikua..). Etxerako lanak egiteko edo jolasteko ezin izango dira irten.

#### **Ikasleak arautegia bete ezean ondorengo neurriak hartuko dira:**

- 1. falta partez jangelako arduradunak umearekin hitz egingo du, azalpenak eskatuko dizkio eta arauak gogorarazi. Ondoren familiari jakinaraziko zaio.
- 2. falta partez familiarekin eta umearekin batera bilera egingo da eta egoeraren azalpena eman ondoren akordio batera iritsiko da.
- 3. falta partez ikasleari eta familiari jakinaraziko zaie, eta ikasleak jangelako zerbitzua jasotzeko eskubidea galduko du 3 egunetarako.
- 4. falta partez ikasleak jangelako zerbitzua jasotzeko eskubidea galduko du astebeterako
- 5. falta partez ikasleak jangelako zerbitzua jasotzeko eskubidea galduko du hilabeterako.
- 6. falta partez ikasleak jangelako zerbitzua jasotzeko eskubidea galduko du ikasturte osorako.
- 7. lehenengo falta larria bada elkarbizitza batzordeak erabakiko du hartu beharreko neurriak .